

innobasque

berrikuntzaren
euskal agentzia

agencia vasca
de la innovación

Innobasque Berrikuntza Txostena 2018

2018ko ekaina

Euskadiko bilakaera
konparatua



Sarrera

Txosten hau eragileei, bai publikoei bai pribatuei, **gogoeta** egitea eta **erabakiak hartzea** eragiteko **diagnostiko** bat da. Horrela, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistema hobetzeko neurriak martxan jartzea bultzatuko da, ikuspegi partekatu batetik.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema **ebalutzeko eta monitorizatzeko** Innobasquek duen zereginaren barruan kokatzen da. Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planan **Innobasqueren** esku utzi zuen zeregin hori.

2016ra arteko¹ nazioarteko estatistiketan oinarritutako analisi konparatibo bat da. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren **errealitatearen alderdi askotako ikuspegi bat** eskaintzen du eta Euskadiko I+G+b-aren arloko txosten erreferente bihurtu da.

Txostenak Basque Innovation Perception (BIP) inkestaren **bigarren edizioa** barne hartzen du. **Pertzepzio-inkesta** hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemako kide diren 250etik gora profesionalen talde bati zuzenduta dago. Lan hori 2016an jarri zuen martxan Innobasquek, bertako kide diren erakundeen ekarpenari esker. Analisi kualitatibo bat da, ohiko analisi estatistikoak osatzeko.

(1) 2016. urtekoak dira eskura dauden azken datu estatistikoak.

Aurki- bidea

3

- 00 Ondorioak
- 01 Euskadiko I+G+Bren posizionamendua nazioartean
- 02 Euskadiko I+G+Bren jardura EB-28koaren aldean
- 03 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren pertzepzioa (BIP)
- 04 Innobasqueri buruz
- 05 Innobasqueren ibilbidea
- A Eranskinak

00

Ondorioak

I+Gren arloko inbertsioa berreskuratzen ari gara, gaur egungo egoera krisiaren aurrekoa bezalakoa ez bada ere

5

Enpresek eta administrazio publikoek egindako ahalgintaren emaitza gisa, Euskadi gaur egun **berrikuntza-maila handiko Europako eskualde bat** da.

2008An, I+G gastu-maila, BPGarekiko, **Europakoarekin parekatzea** lortu, eta 2009-2012an gainditu ere egin zuen.

2012tik aurrera, **krisiaren eraginaren** ondorioz, Euskadiko I+G gastua, BPGarekiko, EB-28kotik urrundu zen: zehazki, % 1,82koa izan zen; Europakoa, berriz, % 2,03koa.

2016an¹, joera-aldaketa bat gertatu zen, eta **I+Gren arloko gastua % 1,4 hazi zen** termino absolututan.

Hazkunde hori, 2018an BIPeko aditu-taldeak **haute-mandako baikortasuna** eta egoera ekonomiko positiboa ikusita, **I+Gko inbertsio-maila berreskuratzen ari garela** ondoriozta dezakegu.

(1) 2016. urtekoak dira eskura dauden azken datu estatistikoak.

Eszenategi ezberdina. Zer aldatu da?

6

1 Sistema eraginkorragoa da. Produktu berrien salmentek eta maila teknologiko ertain-altuko sektoreetako esportazioek hazten jarraitu dute, inbertsioen bilakaera alde batera utzita.

2 Enpresa ertainek I+Gn protagonismo handiagoa izan dute. Krisiaren eraginez, I+Gn inbertitzen duten enpresa handi askoren tamaina txikitu egin da.

3 Hala ere, berrikuntzaren arloan, ETEak oraindik ere ahulak dira, EBrekin alderatuta, honako hauetan:

- Antolakuntzarekin eta merkaturatze edo marketinarekin lotutako berrikuntzan.
- Makineria aurreratu, softwareko, patenteetako, eta abarretako inbertsioetan.

4 Enpresetako I+G gastuaren eta EB-28koaren artean arrakala bat sortu da, krisiaren eraginez. 2010etik, enpresetako BPGarekiko I+G gastuan alde handitu egin da.


5 Nazioarteko I+G publikoa gelditu egin da. Azken hamarkadako H2020ko Europako itzulkinen hazkundera maila gorenera iritsi dela ematen du.

6 I+Gko langileak kualifikatuagoak dira, eta emakume gehiago daude. Ikertzaileen ehunekoa handitu egin da, baita doktore titulua duten pertsonen kopurua ere.

Euskadiko I+G+Bren posizionamendua nazioartean


Euskadi Europako eskualdeen testuinguruan

Europako Batzordeak Euskadi «berrikuntza-gunetzat» jotzen du oraindik ere, berrikuntza-maila handiko eskualde gisa kalifikatutako Estatuko eskualde bakarra delako, eta Europako hegoaldeko ia bakarra.



8

Euskadik RIS 2017 adierazlean duen kokapena




“Most of the Regional Innovation Leaders are located in countries identified as Innovation Leaders (...). However, regional ‘pockets of excellence’ can be identified in some Moderate Innovator countries (for instance, Praha (Prague) in the Czech Republic, Bratislavský kraj in Slovakia, and País Vasco (Basque Country) in Spain).”

(1) Lehen aldiz, Suitza (7) eta Serbiako (4) eskualdeak hartu dira kontuan, nahiz eta EB-28ko taldearen barruan ez egon, Norvegia bezala (7), baina azken hori bai jaso zela RIS 2016 adierazlean.


Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2017.

Gainera, Euskadik kalifikazio horri eutsi dio beste urte batez, nahiz eta bere inguruko eskualdeek bilakaera negatiboa izan.

Europako eskualdeek RIS adierazlean duten kokapenaren bilakaera



2009




2012


2017



2016





2014




Hala ere, Regional Innovation Scoreboard (RIS) adierazlearen sailkapenean atzera egin du azken urteotan, eta berrikuntza-maila moderatuko eskualdeen mailetara hurbildu da.

Euskadi adierazlearen balioan bilakaera negatiboa izan duten eskualdeen artean dago.

RIS adierazlearen balio-aldaketa, eskualdeka (2011-2017)



Euskadiren RIS adierazlearen balioa, EB-28koaren aldean (2009-2017)




(1) Gutxi gorabeherako balioak.

Iturria: Europako Batzordea. RIS 2017; EB. RIS 2016: Regional profiles - Spain; EB. RIS 2017: Regional profiles - Spain.

Hezkuntza-maila eta eragin ekonomikoak dira Euskadiren indargune handienak Europako beste eskualdeekin alderatuta; ETEen berrikuntza, berriz, ahultasun nagusia.

Euskadik Europako eskualdeen artean duen kokapena, RIS 2017 adierazlearen arabera

11



Euskadi ≤ #55

#56 ≤ Euskadi ≤ #110

#111 ≤ Euskadi ≤ #165

#166 ≤ Euskadi ≤ #220

(1) Teknologia-zentroak (TZ) eta ikerketa kooperatiboko zentroak (IKZ) enpresen artean sartzan dira, pribatuak direlako; aldiz, Europako homologoak, normalean, administrazio publikoen sektorekoak dira.


Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2017: Database.

Euskadi EB-28ko estatu kideen aldean

Estatu kideen errendimendua neur-
tzen duen adierazle sintetikoaren
arabera (EIS), Euskadi ere badago
berrikuntza-maila handiko herrial-
deen artean, baina EB-28koarenak
baino balio txikiagoak ditu.

12

EIS 2017 adierazlea, EB-28ko estatu
kideen arabera (Ø; 2017)



2015etik, Euskadik atzera egin du EB-28ko herrialdeekiko duen toki erlatiboan, eskualdeen RIS adierazlean gertatu den bezala.

13

Euskadiren EIS adierazlearen balioaren bilakaera EB-28ko taldearekiko (Ø; 2010-2017¹⁾)




(1) 2009tik 2016ra arteko urteetako datuak, EIS 2017aren metodologiari jarraituz, eta argitaratze-urteak erreferentzia hartuta. Iturria: Eustat. Berrikuntzako adierazleen panela (EIS) 2017.

Hala eta guztiz ere,
2010etik EB-28koarekiko
tarte gehien gutxitu
duten herrietan, Euskadi
bigarrena da.

Aldi berean, Estatuaren eta EB-28ko
taldearen arteko arraila portzentajezko ia
5 puntu handitu da.

EIS adierazlearen balioaren bilakaera, EB-28ko estatu kideen arabera,
EIS 2017aren metodologiari jarraikiz (Ø; %; 2010-2017¹)

EB-28ko taldearekiko
posizio erlatiboa EIS
2017 adierazlean
(EB-28 = 100; EIS 2017)




(1) 2009-2016 aldiko datuak, EIS 2017aren metodologiari jarraikiz. Erreferentzia gisa argitaratze-urteak erabiltzen dira.

Iturria: Eustat. Berrikuntzako adierazlearen panela (EIS) 2017.

Indargune nagusiak esparru-baldintzen adierazleetan daude, eta ahuleziak, berriz, finantzaketan eta aktibo intelektualetan.

EIS adierazleak eskualdeen RIS adierazleak zehaztutako indargune eta ahulezia berak adierazten ditu.

EIS adierazlearen balioa, Euskadiren eta EB-28koaren dimentsioaren arabera (Ø; 2017)



Iturria: Eustat. Berrikuntzako adierazleen panela (EIS) 2017.

Ondoriak

Euskadi «berrikuntza-maila handiko» eskualdeen eta herrialdeen taldean dago oraindik, posizio erlatiboan atzera egin duela egiaztatu bada ere.

16

Europako Batzordeak **Euskadi «berrikuntza-gunetzat»** jotzen du oraindik ere, berrikuntza-maila handiko eskualde gisa kalifikatutako Estatuko autonomia-erkidego bakarra delako, eta Europako hegoaldeko ia bakarra.

Hala ere, **posizioak galdu ditu** azken urteotan, bai Europako eskualdeen bai estatuen aldean. Gaur egun, «berrikuntza-maila moderatura» hurbiltzen ari da.

Euskadi **gazteen prestakuntza-mailagatik** eta I+G+Bren **eragin ekonomikoagatik** nabarmentzen da, eta **ETEetako berrikuntza** da haren ahulezia nagusia. Zehazki, marketin eta antolamenduaren arloko berrikuntza-jarduerak, eta makineria edo software aurreratuen, patenteen eta abarren inbertsioari lotutako berrikuntza-gastua.


**Euskadiko
I+G+Bren
jarduera
EB-28koaren
aldean**

Ikerketa eta Garapena

I+G ARLOAN EGINDAKO GASTUA ETA INTENTSITATEA

2008an, Euskadik bere I+G gastua, BPGarekiko, Europakoarekin parekatzea lortu zuen, baina 2012tik aurrera, krisiaren eraginez, EB-28kotik urrundu zen: zehazki, % 1,82koa izan zen; Europakoa, berriz, % 2,03koa.


I+Gko barne-gastua, BPG_{mp}-arekiko, eta BPG_{mp}-aren urtetik urterako hazkundera, Euskadin eta EB-28koan (%; 2005-2016)



Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika; Eustat. Kontu ekonomikoak; Eurostat [rd_e_gerdot], [nama_10_gdp].

2016an, joera-aldaketa bat gertatu zen I+Gren barneko gastuan, eta I+Gren arloko gastua % 1,4 hazi zen termino absolututan.


I+Gko barne-gastua, Euskadin eta EB-28ko taldean (milioi euro; 2005-2016)



Bai finantzaketa pribatuak bai publikoak lagundu zuten 2016ko I+G arloko gastuaren hazkunde hori.

Euskadiko I+G gastua, funtsen jatorriaren arabera¹
(milioi euro; 2005-2016)

20



(1) Finantzaketa pribatua = Enpresen eta IAGEPen funts propioak + enpresa pribatuen finantzaketa + TZ eta IKZen finantzaketa + unibertsitate pribatuen finantzaketa + IAGEPen finantzaketa.
Finantzaketa publikoa = Administrazio Publikoen funts propioak + unibertsitateen funts propioak + administrazio publikoen finantzaketa + enpresa publikoen finantzaketa + Unibertsitate Publikoaren finantzaketa.
Nazioarteko finantzaketa = atzerriatik datorren finantzaketa.


(2) Estatistika honek ez du jasotzen beste bide batzuk erabiliz (adibidez, zerga-pizgarriak, maileguak eta erosketak publiko berritzaileak) egiten den finantzaketa publikoaren zati handi bat.

Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerari buruzko estatistika.

Hala ere, nazioarteko finantzaketaren hazkundera gelditu egin zen, finantzaketa pribatuaren zein, lehen aldiz 2006tik, publikoaren beherakadagatik.

Nazioarteko finantzaketa publikoa maila altuan zegoen oraindik, serie historikoa kontuan harturik.


Euskadiko nazioarteko finantzazioaren bilakaera, iturri motaren arabera (milioi euro; 2005-2016)



Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika.

Nazioarteko finantzaketa publikoaren beherakada lotuta zegoen euskal erakundeek EB-28ko taldearen Horizon 2020 (H2020) izeneko zortzigarren Esparru Programan lortutako itzulkinen jaitsierarekin.

Euskadin EBko I+Gko Esparru Programek izandako itzulkinak (%; 1990-2016)




■ Euskadin izandako itzulkinak (%), Esparru Programen aurrekontuarekiko

Ondorioz, moteldu
egin zen Euskadiko I+G
finantzatzeko egitura
EB-28ko taldearenarekin
bat etortzeko prozesua.

Finantzaketa publikoaren garrantzia
handiagoa zen oraindik Euskadin
nazioartekoaren aldean.

Euskadiko eta EB-28ko I+G arloko barne-gastua finantzatzeko
egituraren bilakaera, funtsen jatorriaren arabera (%; 2005-2016)




(1) Administrazio publikoetatik eta goi-mailako hezkuntza-erakundeetatik datorren finantzaketa hartzen du barnean.
Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerari buruzko estatistika; Eurostat [rd_e_gerdfund].

Kapital-gastuek behera egiten jarraitu zuten, harik eta, 2016an, serie historikoaren maila txikienetan egon ziren arte.


Kapital-gastuen maila EB-28koaren azpitik egon zen 2013az goertzik.

24

I+Gko barne-gastua, Euskadin, gastu motaren arabera (milioi euro; 2005-2016)



I+Gko barne-gastua, Euskadin eta EB-28ko taldean, gastu motaren arabera (%; 2005-2015)



Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika, Eurostat [rd_e_gerdcost].

Euskal I+G egikaritzeko egituraren ezaugarri da oraindik enpresek¹ eta unibertsitateek garrantzi gutxiago izatea zientzia eta teknologia arloko zentroek (IAGEP) dutenaren aldean².

IAGEPen garrantzia² handiagoa izan zen 2016an 2014an baino; 2014an izan zen serieko gutxieneko pisua.

Euskadiko eta EB-28ko I+G arloko barne-gastua egikaritzeko egituraren bilakaera, gauzate-sektorearen arabera (%; 2005-2016)



(1) Euskadiko figura juridiko berezi bat dira enpresetako I+G unitateak. Enpresekin batera jasotzen dira, irabazi-asmorik gabeko erakundeak (IAGEP) izan arren.


(2) Euskadiko irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetan (IAGEP) TZak eta IKZak sartzen dira; egikaritze-sektore hori ia osorik hartzen dute. Era bereko erakundeak administrazio publikoen sektorekoak izaten dira EB-28ko taldean.

Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerari buruzko estatistika; Eurostat [rd_e_gerdfund].


I+Gko mix jarduerari dagokionez, Euskadin merkatutik hurbilen dauden jarduerak (garapen esperimentalak) pisu gutxiago dute oraindik lider teknologikoak diren herrialdeetan baino (Japonia eta Estatu Batuak, adibidez).

Oinarrizko ikerketak % 15 inguruko pisua du Euskadin, zientziaren arloan erreferentzia diren herrialdeen –hala nola Estatu Batuak eta Erresuma Batua– mailatik gertu dago, hortaz.

I+Gko barne-gastua, Euskadin, I+G motaren arabera (%; 2005-2016)



Jarduera-mixa (%; 2015)




Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerari buruzko estatistika; Eurostat [rd_e_gerdcost]; OECD.Stat: Research and Development Statistics.

2016an, Euskadiko I+G arloko barne-gastuaren % 70 ingeniartzaren eta teknologiaren zientzia-diziplinara bideratu zen.

2005etik, gainerako diziplinek I+G arloko inbertsioaren pisua handitu zuten gastuaren hazkunde azkarragoari esker.

I+Gko barne-gastua, zientzia-diziplinaren arabera, Euskadin (%; 2005-2016)




Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika.

Enpresek, euskal I+Gren finantzatzaile nagusiek, bideratu zuten funts gehien ingeniartzaren eta teknologiaren arloko I+Gko barne-gastura 2016an.

Gainerako zientzia-diziplinetan administrazio publikoek egin zuten ekarpen handiena. Finantzaketa-egitura ezberdinak zituzten diziplina horiek.

I+Gko barne-gastuaren funtsen jatorria, zientzia-diziplinaren arabera, Euskadin (%; 2016)




Ikerketa eta Garapena

ENPRESETAKO I+G

2016an, handitu egin zen BPGarekiko enpresetako I+Gren gastuaren arraila, EB-28koaren aldean.

Enpresetako I+G gastua, BPG_{mp}arekiko, eta BPG_{mp}aren urteko urterako hazkundera, Euskadin¹ eta EB-28ko taldean (%; 2005-2016)

Enpresetako I+G gastua, BPG_{mp}arekiko



— Euskadi - Enpresetako I+Gko gastua BPGarekiko

— EB-28 - Enpresetako I+Gko gastua BPGarekiko

... Euskadi - BPGaren urteko urterako hazkundera

... EB-28 - BPGaren urteko urterako hazkundera


(1) Euskadiko figura juridiko berezi bat dira enpresetako I+G unitateak. Enpreekin batera jasotzen dira, irabazi-asmorik gabeko erakundeak (IAGEP) izan arren. Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika; Eustat. Kontu ekonomikoak; Eurostat [rd_e_gerdtot], [nama_10_gdp].

Lehen aldiz handitu zen 2012z geroztik, ordea, enpresek eta I+Gko unitateek gauzatutako I+Gren arloko barne-gastua.

EB-28ko taldean, enpresetako I+Gko gastuak gora egiten jarraitu zuen (ia % 30) 2008tik 2016ra bitartean, eta Euskadin, berriz, % 3tik gorako jaitsiera izan zuen.

30


Enpresetako I+Gko gastua, Euskadin¹ eta EB-28ko taldean (milioi euro; 2005-2016)



(1) Euskadiko figura juridiko berezi bat dira enpresetako I+G unitateak. Enprekin batera jasotzen dira, irabazi-asmorik gabeko erakundeak (IAGEP) izan arren. Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerari buruzko estatistika; Eurostat [rd_e_gerdfund].

2016ko gastu-igoera nagusia enpresa ertainetan gertatu zen; enpresa handietako I+G gastuaren beherakada konpentsatu zuten. Azken horiek ia % 32ko beherakada metatua zuten 2012tik.

Enpresetako I+G gastua, Euskadin, enplegu-estratuaren arabera (milioi euro; 2005-2016)



Ondorioz, enpresa ertainen pisua, lehendabizikoz, handiagoa izan zen handiena baino EB-28koaren aldean.


Enpresetako I+G unitateek Euskadiko enpresetako I+Gren % 11-12 inguru gauzatu zuten 2011tik 2016ra bitartean.

32

Enpresek eta enpresetako I+G unitateek egindako I+Gren banaketa, Euskadin (%; 2005-2016)



Enpresen I+Gko barne-gastua, enplegu-estratuen arabera (%; 2005, 2009, 2013 eta 2015)¹



(1) Euskadin enpresa-establizimendua da neurri-unitatea, eta enpresa, berriz, EB-28ko taldean.

Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika; Eurostat [rd_e_berdsize].

Enpresa handien I+G arloko barne-gastuaren 2012-2016 aldiko beherakada, batez ere, haietatik 22 enpresa ertainen segmentura igaro zirelako eta inbertsio-maila handia zuten 3 enpresak itxi zutelako gertatu zen.

Gainera, 2012an I+G gauzatzen zuten 50 enpresa handik gastua ia % 2 gutxitu zuten 2016an (171,0 milioi eurotik 167,8 milioi eurora).

33

I+Gko barne-gastua eta gutxienez 250 langile dituzten establezimenduen kopuruaren 2012-2016 aldiko jaitsieraren azalpena

Gutxienez 250 langile dituzten Euskadiko enpresa-establezimenduak

Urtea	Kopurua guztira	I+Gko jarduerarekin Kopurua	I+Gko gastua
2008	258	100	251,5M€
2012	231	95	272,8M€
2016	238	63	186,7M€
2012-2016ko bilakaera	+7	-32	-86,1M€ -31,6%

Segmentu-aldaketa

- 22 enpresa 2012an enpresa handi izatetik (53,3 milioi euro) 2016an ETE izatera (44,6 milioi euro) igaro ziren
- + 2012an I+G egiten zuten 7 enpresa ETE izatetik enpresa handi izatera igaro ziren (10,8 milioi euro, 2016an)

-41,5 M€

Gastu-bolumen handiko enpresen itxiera

- I+G arloan gastu-maila handia zuten 3 enpresak itxi zuten 2012tik aurrera (37,2 milioi euro, 2012an)

-37,2 M€

I+Gko gastu-intentsitatea gutxitzea

- 2012an I+G gauzatzen zuten 50 enpresa handik gastua % 1,9 gutxitu zuten (171,0 milioi eurotik 167,8 milioi eurora)
- 20 enpresa handik I+G gauzatzeari utzi zioten (12,3 milioi euro, 2012an)
- + 6 enpresa handi I+G egiten hasi ziren 2016an (8,1 milioi euro)


-7,4 M€

-86,1 M€

**Krisiaren hasieratik
pisua gutxitu bazen ere,
enpresetako I+Gren
finantzaketa publikoa
handiagoa zen oraindik
EB-28koa baino.**

Nazioarteko finantzaketak pisu konparatiboki txikia izan zuen oraindik Euskadin.

Enpresetako I+G, funtsen jatorriaren arabera¹, Euskadin eta EB-28ko taldean (%; 2005, 2008, 2012, 2014 eta 2015)



(1) Finantzaketa pribatua (Euskadi: Enpresen funts propioak + Enpresa pribatuen finantzaketa + Unibertsitate pribatuen finantzaketa + IAGEPen finantzaketa | EB-28: Finantzaketa pribatua = Enpresetatik eta IAGEPetik etorritako finantzaketa)
Finantzaketa publikoa: (Euskadi: Administrazio publikoaren finantzaketa + Enpresa publikoaren finantzaketa + Unibertsitate publikoaren finantzaketa | EB-28: Finantzaketa publikoa = Administrazio publikoetatik eta goi-mailako hezkuntza-erakundeetatik datorren finantzaketa)
Nazioarteko finantzaketa = atzerriatik datorren finantzaketa.


Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerari buruzko estatistika; Eurostat [rd_e_gerdfund].

2016an, laguntza publikoa zuten enpresek gauzatu zuten enpresetako I+Gren % 85 inguru, eta enpresetako I+Gren % 60 garatu zuten Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zutenek.

Eusko Jaurlaritzaren laguntza duten enpresen ehunekoak gutxitu egin zen 2012tik.

35

Enpresetako I+Gko barne-gastua, finantzaketaren arabera (k€; 2005-2016)




(1) Enpresak, zentzu hertsian, eta enpresetako I+G unitateak baino ez ditu barnean hartzen. Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerari buruzko estatistika.

Ikerketa eta Garapena

I+G ARLOKO LANGILEAK

2016an, Euskadiko I+Gren arloko langileen kopurua pixka bat murriztu arren, kualifikazioa hobetu egin zen eta emakumeek presentzia handiagoa izan zuten.

Euskadiko I+Gko langileen magnitude nagusiak (kopurua DOBren arabera¹, %; 2005-2016)




(1) Zenbakizko datuak dedikazio osoko baliokidetzakoak (DOB) dira.

Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerari buruzko estatistika; Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA).

Euskadi konparatiboki nabarmentzen da I+Gko langileen pisu handiagoa duelako, bai biztanleria aktiboarekiko bai biztanleria okupatuarekiko.

37
DOBN dagoen I+Gko langileen ehunekoa, Euskadin eta EB-28ko taldean, biztanleria aktiboarekiko eta okupatuarekiko (%; 2005-2016)



Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika; Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA); Eurostat [rd_e_perslf].

Ikertzaileek gero eta ehuneko handiagoa hartzen dute Euskadiko I+Gren arloko langileen artean; 2016an EB-28ko taldean baino handixeagoa izan zen.


2016an, enpresek bultzatu zuten bilakaera hori, termino erlatiboetan, EB-28koan baino pisu txikixeagoa izan arren.

38

DOBn dagoen ikertzaileen pisuaren bilakaera, Euskadin eta EB-28ko taldean, DOBn dagoen I+G arloko langileekiko (%; 2005-2016)



DOBn dagoen ikertzaileen banaketa, Euskadin eta EB-28ko taldean, gauzatze-sektorearen arabera¹ (%; 2005-2016)



(1) Euskadiko irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatueta (IAGEP) TZak eta IKZak sartzen dira; gauzatze-sektore hori ia osorik hartzen dute. Era bereko erakundeak administrazio publikoen sektorekoak izaten dira EB-28ko taldean.


Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerari buruzko estatistika; Eurostat [rd_e_persocc].

Euskadin are gehiago handitu da I+G arloko emakumeen pisua, EB-28ko taldearen bilakaerarekin bat etorriz.


2016an, emakumeen presentzia txikiagoa izan zen enpresen sektorean, baina EB-28ko taldean baino handiagoa izan zen.

39

I+G arloko langile emakumeen ehunekoaren bilakaera, EB-28ko taldean¹ eta Euskadin (%; 2005-2016)



I+G arloko langile emakumeen ehunekoa, Euskadin eta EB-28ko taldean¹, I+Gko langileekiko, gauzatze-sektorearen arabera^{2,3} (%; 2015)



(1) EB-28ko taldearen datuak, zenbaki absolututan (EZ DOBn), informaziorik ez baitago.

(2) Euskadiko figura juridiko berezi bat dira enpresetako I+G unitateak. Enprekin batera jasotzen dira, irabazi-asmorik gabeko erakundeak (IAGEP) izan arren.

(3) Euskadiko irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek (IAGEP) TZak eta IKZak hartzen dituzte barnean; gauzatze-sektore hori ia osorik hartzen dute. Era bereko erakundeak administrazio publikoen sektorekoak izaten dira EB-28ko taldean.

Iturria: Eustat. Ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerari buruzko estatistika; Eurostat [rd_e_persocc].

Berrikuntza


ENPRESA BERRITZAILEAK

2008 eta 2014 artean, enpresa berritzaileen ehunekoa txikiagoa izan zen Euskadin EB-28ko taldean baino, berrikuntza ez-teknologikoak egiten zituzten enpresen ehuneko txikiagatik.

Nolanahi ere, enpresa berritzaile teknologikoen ehunekoa handiagoa izan zen.

40

Core² sektoreetako 10 ≤ lanpostuko enpresa¹ berritzaileak, berrikuntza³ motaren arabera, Euskadin eta EB-28ko taldean (%; 2008-2010 - 2014-2016)



(1) Euskadin enpresa-establezimendua da neurri-unitatea, eta enpresa, berriz, EB-28ko taldean.

(2) Core sektoreak NACE kodeak (2. berrik.) dituzten honako jardura-adar hauei dagozkie: B Erauzteko industriak; C Manufaktura-industria; D Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura; E Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa; G46 Handizkako merkataritza eta merkataritzaren bitartekariak; H Garraioa eta biltegiak; J58 Edizioa; J61 Telekomunikazioak; J62 Programazioa, aholkularitza eta informatikako beste jardura batzuk; J63 Informazio-zerbitzuak; K Finantza- eta aseguru-jarduerak; M71 Arkitektura eta ingeniariaritzako zerbitzu teknikoak, analisi eta saio teknikoak; M72 Ikerketa eta garapena; M73 Publizitatea eta merkatu-azterketak.

(3) Enpresa berritzaileen eta teknologietan berritzaileak diren enpresen ehunekoaren barruan, martxan dauden edo huts egindako berrikuntza teknologikoak dituzten enpresak (EIN) sartzen dira.


Iturria: Eustat. Berrikuntzari buruzko inkesta; Eurostat. Community Innovation Survey (CIS) 2010, 2012, 2014.

Enpresa berritzaile ez-teknologikoen ehuneko txikiagoa dago, EB-28koaren aldean; batez ere txikiagoa delako merkaturatzean berrikuntza sartu dutenen ehunekoa.

Berrikuntza ez-teknologikoen ehunekoak, 2008 eta 2014 artean Euskadin eta EB-28ko taldean behera egin bazuen ere, Euskadiko jaitsiera handiagoa izan zen, antolamenduan berrikuntza sartu zutenen bilakaeragatik.

41

Core sektoreetako $10 \leq$ lanpostuko enpresa berritzaile ez-teknologikoak, berrikuntza ez-teknologiko motaren arabera, Euskadin eta EB-28ko taldean (%; 2008-2010 - 2014-2016)




Iturria: Eustat. Berrikuntzari buruzko inkesta; Eurostat. Community Innovation Survey (CIS) 2010, 2012, 2014.

Berritzaile teknologikoei dagokienez, Euskadik prozesuan berrikuntza sartu zuten enpresen ehuneko handiagoa tizan zuen.

EB-28ko taldean, produktuarekin lotutako berrikuntza egin zutenen ehuneko handiagoa izan zen prozesuekin lotuta egin zutenena baino.

42

Core sektoreetako 10 ≤ lanpostuko EIN enpresa berritzaile teknologikoak, berrikuntza teknologiko motaren arabera, Euskadin eta EB-28ko taldean (%; 2008-2010 - 2014-2016)




Iturria: Eustat. Berrikuntzari buruzko inkesta; Eurostat. Community Innovation Survey (CIS) 2010, 2012, 2014.

Sektorea alde batera utzita, 2012-2014 aldian, Euskadiko enpresa berritzaileen ehunekoa txikiagoa izan zen EB-28koa baino, baina alde hori handiagoa izan zen berrikuntza ez-teknologikoan.

Core¹ sektoreetako 10 ≤ lanpostuko enpresa berritzaileak, berrikuntza motaren eta sektorearen arabera, Euskadin eta EB-28ko taldean (%; 2012-2014)

43




(1) Core sektoreak NACE kodeak (2. berrik.) dituzten honako jardueren artean daude: B Erauzteko industriak; C Manufaktura-industria; D Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura; E Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa; G46 Handizkako merkataritza eta merkataritzaren bitartekariak; H Garraioa eta biltegiak; J58 Edizioa; J61 Telekomunikazioak; J62 Programazioa, aholkularitza eta informatikako beste jarduerak; J63 Informazio-zerbitzuak; K Finantza- eta aseguru-jarduerak; M71 Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzu teknikoak, analisi eta saio teknikoak; M72 Ikerketa eta garapena; M73 Publizitatea eta merkatu-azterketak.

Iturria: Eustat. Berrikuntza teknologikoari buruzko inkesta; Eurostat. Community Innovation Survey (CIS) 2014.

Tamainari dagokionez, berrikuntza ez-teknologikoaren arloan, EB-28rekiko aldea are handiagoa izan zen enpresa zenbat eta txikiagoa izan.

Core sektoreetako $10 \leq$ lanpostuko enpresa berritzaileak, berrikuntza motaren eta tamainaren arabera, Euskadin eta EB-28ko taldean (%; 2012-2014)




Berrikuntza

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO GASTUA

Berrikuntza teknologikorako jardueren gastua % 6,5 handitu zen Euskadin 2014 eta 2016 artean, I+Gri lotu gabeko inbertsioen gastua (makineria, softwarea, patenteak, etab.) % 17,5 handitzeari esker¹.

Core sektoreetako 10 ≤ lanpostuko enpresen berrikuntza teknologikorako jardueren gastua, jarduera motaren arabera, Euskadin (milioi euro; 2009-2015)




(1) «I+G ez den» berrikuntza teknologikoan berrikuntza teknologikorako honako jarduera hauen gastua sartzen da: makineria, ekipoa, hardware edo software aurreratu eta eraikinak eskuratzea produktu/prozesu berri/hobetueterako; kanpoko beste ezagutza batzuk eskuratzea (patenteak, lizentziak, markak, softwarea, etab.); berrikuntza-jardueretarako prestakuntza; produktu-berrikuntzak merkatuan sartzera (merkatutzeko jarduerak); diseinua, ekoizteko eta/edo banatzeko beste prestaketa batzuk (produktu/prozesuaren berrikuntzetarako prestaketak).

Iturria: Eustat. Teknologia Berrikuntzaren Inkesta.


2014an, enpresa berritzaileko gastua EB-28koa baino txikiagoa zen.

I+Gri lotu gabeko gastua txikiagoa izan zen EB-28ko taldean baino; 2014an % 40 izan zen.

Core sektoreetako 10 ≤ lanpostuko enpresen¹ berrikuntza teknologikorako gastuaren banaketa, Euskadin eta EB-28ko taldean (%; 2010-2015)



Core sektoreetako 10 ≤ lanpostuko enpresen¹ berrikuntza teknologikorako gastuaren intentsitatea, Euskadin eta EB-28ko taldean (k€/ EIN berritzaile tekn.; 2009-2015)




(1) Euskadin enpresa-establezimendua da neurri-unitatea, eta enpresa, berriz, EB-28ko taldean.

Iturria: Eustat. Berrikuntza teknologikoari buruzko inkesta; Eurostat. Community Innovation Survey (CIS) 2010, 2012, 2014.

Sektoreei dagokienez, euskal industria eta zerbitzuetan berrikuntza teknologikoko gastua ez zen horren intentsua izan.

Bai Euskadin bai EB-28ko taldean, industria intentsiboagoa izan zen.

Core sektoreetako $10 \leq$ lanpostuko enpresen¹ berrikuntza teknologikorako jardueretako gastuaren intentsitatea, tamainaren arabera, Euskadin eta EB-28ko taldean (k€/ EIN berritzaile teknologikoa; 2010-2015)



(1) Core sektoreak NACE kodeak (2. berrik.) dituzten honako jardueradar hauei dagozkie: B Erauzteko industriak; C Manufaktura-industria; D Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura; E Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa; G46 Handizkako merkataritza eta merkataritzaren bitartekariak; H Garraioa eta biltegiatzea; J58 Edizioa; J61 Telekomunikazioak; J62 Programazioa, aholkularitza eta informatikako beste jarduerak; J63 Informazio-zerbitzuak; K Finantza- eta aseguru-jarduerak; M71 Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzu teknikoak, analisi eta saio teknikoak; M72 Ikerketa eta garapena; M73 Publizitatea eta merkatu-azterketak.

Iturria: Eustat. Berrikuntza teknologikoari buruzko inkesta; Eurostat. Community Innovation Survey (CIS) 2010, 2012, 2014.

Euskal enpresa ertainek EB-28koek baino berrikuntza teknologikoko ahalegin handiagoa egin zuten, eta txikiak zein handiek, berriz, ahalegin txikiagoa; handiei dagokienez, 2014 nabarmendu behar da batez ere.

Enpresaren tamaina berrikuntza teknologikoko gastu handiagoarekin egon zen lotuta, bai Euskadin bai EB-28ko taldean.

48

Core sektoreetako 10 ≤ lanpostuko enpresen¹ berrikuntza teknologikorako jardueretako gastuaren intentsitatea, tamainaren arabera, Euskadin eta EB-28ko taldean (k€/ EIN berritzaile teknologikoa; 2010-2015)



(1) Euskadin enpresa-establezimendua da neurri-unitatea, eta enpresa, berriz, EB-28ko taldean.

Iturria: Eustat. Berrikuntza teknologikoari buruzko inkesta; Eurostat. Community Innovation Survey (CIS) 2010, 2012, 2014.


I+G+Bren emaitzak

EMAITZA ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOAK


Euskadiko zientzia-ekoizpena are gehiago handitu zen, eta pixkanaka pisua hartu zuen, bai Estatuan bai munduan.

49

Scopusen indexaturiko Euskadiko zientzia-argitalpenak (#; 2005-2016)



Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen zientifikoa, Espainiakoarekin eta mundukoarekin alderatuta (%; 2005-2016)




Gainera, hazkunde horrekin batera bikaintasunak ere egin zuen hobera, batez ere nazioarteko lankidetzak.

2011tik, lehen kuartileko argitalpenak¹ Scopuseko euskal ekoizpen zientifiko osoaren erdia baino gehiago izan zen.

Scopusen dauden Euskadiko argitalpen zientifikoaren bikaintasuna, lidergoa eta nazioartekotzea (#, %; 2005-2016)

50

Bikaintasunaren, lidergoaren eta nazioartekotzearen pisua




(1) Scopusean SJR lehen kuartilean, Scimagoren balioekin, dauden argitalpen zientifikoak.
Iturria: Ikerbasque.

2016an, euskal ekoizpen zientifikoek ia erdiak zientzia zehatzen eta natur zientzien diziplina zientifikoarekin lotuta zeuden.


Argitalpenen zientzia-diziplinaren arabera ez dator bat I+Gko gastuarekin.

51

Scopusen indexatutako argitalpen zientifikoak I+Gko barne-gastua, zientzia-diziplinaren arabera, Euskadin (%; 2016)




Euskadiko argitalpen zientifikoek (Scopus) espezializazio tematikoaren indizea (Ø; 2016)




2013 eta 2016 artean, euskal erakundeek eskatutako EPO patenteen kopuruak gora egin zuen, bai termino absolutuetan bai erlatiboetan, eskaera guztien eta Euskadiko BPGaren aldean.

Hazkundera gorabehera, 2016an, Euskadi urruti zegoen EB-28ko taldearen mailetatik.

Euskadiko² EPO patenteen eskaeren¹ pisua, EB-28koaren aldean (%; 2005-2016)



EPO patenteen eskaerak¹ BPGmp-ko mila milioiko, Euskadin² eta EB-28ko taldean (kM€ EAP; 2005-2016)




(1) Eskaerak erakunde eskatzaileen bizilekua kontuan hartuta; estatistika-agentzien informazioak (Eurostatarena, adibidez) erakunde asmatzailearen bizilekua hartzen dute kontuan.

(2) Europako Patenteen Bulegoan (EPB) zuzenean erregistratu ziren euskal enpresen eskaerak ez dira kontabilizatu.


Iturria: Espainiako Patente eta Marken Bulegoa (EPMB); Europako Patenteen Bulegoa (EPB); Eurostat [nama_10r_2gdp][nama_10_gdp].

Merkataritzako marken eta diseinuen eskaerak, BPGarekiko, aztertuz gero, berriz, Euskadik posizioak galdu zituen, EB-28koen aldean, 2012a eta 2015a artean.

EBko merkataritza-marken eskaerak BPGmp-ko mila milioiko, Euskadin eta EB-28ko taldean (kM€ EAP; 2008-2015)



EBko diseinuen eskaerak BPGmp-ko mila milioiko, Euskadin eta EB-28ko taldean (kM€ EAP; 2008-2015)



I+G+Bren emaitzak


ENPRESA- ETA
EKONOMIA-ARLOKO
EMAITZAK

Produktu berrien salmentatik eratorritako enpresa-emaitzak EB-28koarenak baino hobeak izan ziren, enpresa berritzaileen ehuneko txikiagoa gorabehera.

Europako Batzordeak egindako eskualdeen konparazioaren (RIS) azken edizioaren arabera (ikus 1. kapitulu), Euskadi 220 eskualdeetatik 14. da adierazle horretan.

54

Merkatu eta enpresarako¹ produktu berrien salmenta, core² sektoreko 10 lanpostuko edo gehiagoko enpresen negozio-zifraren ehuneko gisa, Euskadin eta EB-28ko taldean (%; 2008-2014)



(1) Euskadin enpresa-establezimendua da neurri-unitatea, eta enpresa, berriz, EB-28ko taldean.

(2) Core sektoreak NACE kodeak (2. berrik.) dituzten honako jardueradar hauei dagozkie: B Erauzteko industriak; C Manufaktura-industria; D Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura; E Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa; G46 Handizkako merkataritza eta merkataritzaren bitartekariak; H Garraioa eta biltegiatzea; J58 Edizioa; J61 Telekomunikazioak; J62 Programazioa, aholkularitza eta informatikako beste jarduerak; J63 Informazio-zerbitzuak; K Finantza- eta aseguru-jarduerak; M71 Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzu teknikoak, analisi eta saio teknikoak; M72 Ikerketa eta garapena; M73 Publizitatea eta merkatu-azterketak.


Iturria: Eustat. Berrikuntzari buruzko inkesta; Europako Batzordea. European Innovation Scoreboard (EIS) 2017 - database.

Euskadiko teknologia-maila ertain-altuko sektoreetako esportazioek 2009tik izan duten bilakaera positiboa ere (+% 72) nabarmendu zen.

Euskadiko manufaktura-industriako esportazio gordinak, sektoreen teknologia-mailaren arabera (milioi euro; 2005-2016).

55

Euskadiko manufaktura-industriako esportazio gordinak, sektoreen teknologia-mailaren arabera (milioi euro; 2005-2016)




(1) Sektore-taldearen arabera esportazio gordinen balioa haien intentsitate teknologikoaren arabera, eta JESN-2009 (NACE 2. berrik.): maila teknologiko altua (21, 26 eta 30.3), maila teknologiko ertain-altua (20, 25.4, 27-29, 30-30.1 eta 30.3 izan ezik-, eta 32.5), maila teknologiko ertain-baxua (18.2, 19, 22-24, 25-25.4 izan ezik-, 30.1 eta 33) eta maila teknologiko baxua (10-17, 18-18.2 izan ezik-, 31 eta 32-32.5 izan ezik-).

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzari buruzko estatistikak (KAMEE).


Esportazio gordinak alderatzen baditugu, Euskadi EB-28ko taldearen azpitik egon zen, bai eduki teknologiko handiko produktuen esportazioei bai ezagutzako zerbitzu intentsiboiei dagokienez.

56

Teknologia ertain-altuko eta altuko produktuen¹ esportazioen pisua, Euskadin eta EB-28ko taldean (%; 2008-2015)



Ezagutza-maila altuko zerbitzuen² esportazioen pisua, Euskadin eta EB-28ko taldean (%; 2008-2015)




(1) *Teknologia altuko edo ertain-altuko produktuak Nazioarteko Merkataritzako Sailkapen Estandarraren hirugarren berrikuspenaren arabera (NMSE, 3. berrik. edo SITC, 3. berrik. ingelesez); esportatutako produktuaren eduki teknologikoarekin dator bat, ez sektore esportatzailearekin (barnean hartutako kapituluak eta taldeak: 266, 267, 512, 513, 525, 533, 54, 553, 554, 562, 57, 58, 591, 593, 597, 598, 629, 653, 671, 672, 679, 71, 72, 731, 733, 737, 74, 751, 752, 759, 76, 77, 78, 79, 812, 87, 88 eta 891).*

(2) *Ezagutzako zerbitzu intentsiboen esportazioak, Zerbitzuen Ordainketa Balantzaren 2010eko Sailkapen Handituko (ZOBESH, edo EBOPS ingelesez) elementu hauen kredituen batura gisa ulertuta: SC1 (itsas garraioa), SC2 (aireko garraioa), SC3A (espazioko garraioa), SF (aseguru-zerbitzuak), SG (finantza-zerbitzuak), SH (erregaliak eta lizentzia-eskubideak), SI (komunikazio-, informatika- eta informazio-zerbitzuak), SJ (beste enpresa-zerbitzu batzuk) eta SK1 (ikus-entzunezko zerbitzuak eta horiei lotutakoak).*

Iturria: Eustat. Berrikuntzako adierazleen panela (EIS); Europako Batzordea. European Innovation Scoreboard (EIS) 2017 - database.

Enpleguari dagokionez, ezagutzako jarduera intentsiboek gero eta ehuneko handiagoa hartu zuten, baina hazkunde apalagoa izan zuten, halere, EB-28ko taldean baino.

Ezagutza intentsiboko jardueretako enpleguaren pisua¹, Euskadin eta EB-28ko taldean (%; 2009-2016)



(1) Lanpostuen % 33k gutxienez goi-heziketako titulu bat duten (IESCD 5-8) sektoreetako enplegua (NACE, 2. berrik., bi digitu), EB-28ko taldean. Iturria: Eustat. Berrikuntzako adierazleen panela (EIS); Europako Batzordea. European Innovation Scoreboard (EIS) 2017 - database.

Ondorioak

2016an, I+Gko barne-gastua lehen aldiz hazi zen 2012tik, baina EB-28ko taldearekiko arrailak, BPGarekiko termino erlatiboetan, gora egin zuen % 1,82ra iritsi arte (Europar % 2,03).

Euskadik I+Gko langileen kualifikazioa eta emakumeen kopurua hobetzen jarraitu zuen.

Bai **finantzaketa pribatuak** bai **publikoak** lagundu zuten hazkunde hori. Halaber, **nazioarteko finantzaketak lehen aldiz egin zuen behera hamar urtean**, Europako itzulkinen beherakadagatik.

EB-28koarekin alderatuta, euskal I+G gauzatzeko egituraren ezaugarria oraindik ere **enpresek eta unibertsitateek garrantzi gutxiago izatea izan zen, zientzia eta teknologia arloko zentroek** dutenaren aldean.

Merkatutik gertuen dauden jarduerak (garapen esperimentalak) pisu gutxiago izan zuten oraindik herrialde teknologikoetan baino (Japonia eta AEB, adibidez).

Euskadiko I+G arloko barne-gastu gehiena, oraindik ere, **ingeniaritzaren eta teknologiaren zientzia-diziplinara** bideratu zen.

2005 eta 2016 artean, Euskadin, handitu egin zen **ikertzaileen** eta **doktorego-titulua** duten pertsonen ehunekoa. Halaber, **emakumeen ehunekoak** ere gora egin zuen.

Enpresen kasuan, 2012tik aurrera, EB-28rekin alderatuz, BPGarekiko I+G gastuan izandako urruntzea nabarmenagoa izan zen Euskadin.

Euskadin, EB-28rekin alderatuz, gutxiago dira berrikuntza-jarduerak dituzten enpresak; bereziki, antolakuntza eta merkaturatzearekin lotutako berrikuntzak dituztenak (berrikuntza ez-teknologikoa).

Euskal enpresen I+Gko intentsitate txikiago hori are nabarmenagoa da makineria eta software aurreratuarekin, patenteekin edo **merkatuan berrikuntza teknologikoak sartzeko** beste jarduera batzuekin lotutako **inbertsioei** dagokienez.

59 **Enpresetako I+G** hazi zen lehen aldiz 2012tik, baina handitu egin zen, halere, enpresetako BPGarekiko I+Gko gastu-mailari dagokionez, EB-28ko taldearekiko irekitako arraila.

Gastuaren hazkundera, 2016an **enpresa ertainetan** pilatu zen, eta, lehendabizikoz, pisu handiagoa izan zuten handiek baino. Hori I+Gn inbertitzen duten enpresa handi batzuen tamaina krisialdian txikiagotu zelako gertatu zen batez ere.

